



Haur Hezkuntza: bizitzako oinarriak ehunduz



Uzt. 08 - Uzt. 10 2019

Kod. H12-19

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2019

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 08 - Uzt. 10 2019

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Aurreko edizioan, bizitzako oinarriak identifikatzen eta aztertzen aritu ginen. Ideia, hausnarketa eta proposamen ugari atera ziren.

Taldean egindako lana, hausnarketa prozesu kolektiboa da. Bakoitzak dakienetik edo bizi izan duenetik taldean partekatzeak badu ibilbidea. Oinarri hauek elkarrekin ehuntzen jarraitu nahiko genuke eta horiek eraikitzeke ezinbesteko alderdiak miatzen eta mamitzen jarraitu: haurren beharrak, helduon esku-hartzea edo begirada, ebaluazioa (dokumentazioa...).

Helburuak

Norbera dagoen lekuan egonda ere, haurtzaroaren begirada bateratua eraiki, haurrari-pertsonari, bere garapen prozesuan bidaidetzan helduaren esku-hartze bateratua definitzea.

Haur Hezkuntzako hezitzaileak haurtzaroaren izateaz hausnartu eta definizio propiora hurbiltzea.

Hezitzaileen eskuhartzeak aztertu eta haurtzaro izateari lagungarri izateko pausoak ehuntzen.

Ebaluazio hastapenetan murgiltzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



prest_gara

Programa

2019-07-08

- 09:00 - 09:15 “Dokumentazio banaketa”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
Nere Inda Goikolea Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako aholkularia.Hezkuntza saila.
-
- 09:15 - 11:30 “Hezitzaileak garen heinean zer dugu ehuntzeko?”
Nere Inda Goikolea Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako aholkularia.Hezkuntza saila.
Kristina Goñi Etxenike Baztango haurreskola - Baztango Haurreskolako zuzendaria
-
- 11:30 - 12:00 Atsedena
-
- 12:00 - 13:30 Mahai ingurua: “Zein artile motaren gainean ari gara?”
Monika Aranburu Zurutuza Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako Hezitzailea
Ainhoa Odriozola Aldalur Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako aholkularia
-
- 13:30 - 14:00 Sintesia
-

2019-07-09

- 09:00 - 11:00 Mahai ingurua: “Nola ehunduko dugu? Zzertarako?”
Monika Aranburu Zurutuza Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako Hezitzailea
Ainhoa Odriozola Aldalur Eusko Jaurlaritza - Haur eta Lehen Hezkuntzako aholkularia
-
- 11:00 - 11:30 Atsedena
-
- 11:30 - 13:30 “Noiz eta zertarako egingo dugu ehuntzen ari garenaren behaketa?”
Nere Inda Goikolea Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako aholkularia
Kristina Goñi Etxenike Baztango Haurreskola - Baztango Haurreskolako Zuzendaria
-
- 13:30 - 14:00 Sintesia
-

2019-07-10

- 09:00 - 11:00 “Ehutzerakoan kokapenak eragina du”
Monika Aranburu Zurutuza Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako hezitzailea
-
- 11:00 - 11:30 Atsedena
-
- 11:30 - 13:30 “Ehundutakoa”
Ainhoa Odriozola Aldalur Eusko Jaurlaritza - Haur hezkuntza-Lehen Hezkuntzako aholkularia

13:30 - 14:00

Sintesia

Zuzendaritza



Nere Inda Goikolea

Berritzegune Nagusia, Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzan diplomatua, Hizkuntzen Psikopedagogian lizentziatua eta entzumena eta mintzamenean aditua. Nire ibilbide profesionalean etapa eta eremu ezberdinetan lan egin dudana arren (Gasteizko Haurreskoletan, Boiseko ikastolan, Nafarroako eta EAEko eskola publiko askotan ordezkapenak...). 2013. urtetik EAEko Berritzegune Nagusian nabil Haur Hezkuntzako aholkulari.

Irakasleak



Monika Aranburu Zurutuza

1975-09-30 jaioa. 3 seme-alabetatik bigarrena naiz. Olaberriko Joxe Mari eta Ordiziako Blancaren alaba naiz. Joxe Mari baserrikoa da eta Blanca kalekoa. Asko gustatzen zait kalean jolastea. Igande askotan, udaberri inguruan, Urbasara egun-pasa joateko ohitura daukagu. Mundiala da! Zapaburuak harrapatu, belarretan jolastu....Ekainean goizez klasea dugunean eta uztailean, gurasoak oporrak hartu bitartean, arratsalde askotan, Olaberriko baserrira joaten gara lehengusuekin jolastera. Lastotan salto, gerezik bildu eta mendian aldapan gora eta behera ibiltzen gara. Etxera zikin zikina iritsi eta dutxa bero bat hartu ostean, leher eginda lokartzen naiz. Gurasoak Ordiziako festak bukatu ostean hartzen dituzte oporrak eta Zarautzera joaten gara. Nire aitak, nahiz eta oporrak izan udan lanera joaten da. Bai baserrian eta bai kostaldean izugarri ondo pasatzen dut. Eskolara oso gustura joaten naiz. Handitan uste dut erizaina nahi dudala izan. Oso neska mugitua eta bihurria naiz. Eskolara gustur



Kristina Goñi Etxenike

□ NIRE FAMILIA: Bortz lorek osatzen dugu gure lorategia: - Aitatxo Pello - Amatxo Tere - Pedro, anai zaharrena - Eugen, erdiko anaia - Ni, lore ttaiena □ NIRE BIZITOKIA: Munduko herri politenean bizi naiz, plaza ondoan dagoen etxe handienean. Herritar gutti gaude herrian, denak elkarrekin ez genuke herriko frontoia beteko. Herritar baino ardi, behi eta txerri gehiago ditugu eta gutxitan bisitatzen gaitu eguzkiak. □ LAGUNAK: Txema, Ana, Itziar eta Jexux dira herriko haur bakarrak eta zortea izan dugu: ederki moldatzen gara gure artean. Hobekien moldatzen naizen pertsonarekin haserretzen naiz gehien, Anarekin eta Txemak du bizikletarik politena. Udan gaueko hamaikak arte jostatzen gara kanpoan eta larunbata da nire asteko egunik gustukoena, egun osoa dugulako elkarrekin jostatzeko. □ ZER NAHI DUT IZAN HANDITAN?: Amatxo izan nahi dut, baina ez nago ziur non ikasten den horretarako, argi dut Donostian, posible bada, ikasiko dudala. Andereño ere izan nahi dut, haurrak aunitz gustatzen zaizk



Ainhoa Odriozola Aldalur

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2019-03-01 ARTE	2019-05-31 ARTE	2019-07-08 ARTE
Prest_gara H12-19	0 EUR	-	-
OROKORRA	-	81,00 EUR	95,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	-	48,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	-	20,00 EUR	20,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	48,00 EUR	62,00 EUR
MATRIKULA BEREZIA	-	48,00 EUR	-
AEK euskaltegiko kide	-	71,25 EUR	-
ELKAR txarteldunak	-	71,25 EUR	-
IKA Euskaltegiak	-	71,25 EUR	-

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa